

AZTERKETA OFIZIALAK (HABE eta IVAP) IRITZI ARTIKULU eta GUTUNAK

1.GAIA : Zer ikasi: Lanbide-ikasketa ala unibertsitate-ikasketa

EGOERA :

Ikastolako blogean ama baten kezka agertu da. Bere 17 urteko alaba batxilergoan ikasten ari da eta bukatutakoan ez daki zer ikasi: lanbide-ikasketak ala unibertsitate-ikasketak. Gainera, amak ere ez daki zein gomendio eman alabari eta gurasoengan jo du aholku eske.

EGITEKOA :

Zure aholkua bidaliko duzu **ikastolako blogera**, eta horretarako:

- **Kontatu** zein izan den zure esperientzia pertsonala.
- **Azaldu** aukera bakoitzak dituen alde onak eta alde txarrak.
- **Eman** gomendioa amari.

Gutxienez, 200 hitz



EUSKARAGARA.NET

2.GAIA: Zer egin oraindik eskolan hasi ez diren umeekin

EGOERA :

Ikastolako gurasoen elkartearen ama batek aholkua eskatu du. Bi urteko umea du eta ez daki zer egin umearekin bera lanean hasten denean. Aukera desberdinak ditu, adibidez, hartzaindegira bidali, aiton-amonekin utzi, zaintzaile bat kontratu, aita edo amarekin geratu. Amak ez du oso argi ikusten zein hautatu eta zalantzan dagoenez, aholkua eskatzea erabaki du

EGITEKOA :

Amari aholkua bidaliko diozu. Horretarako, **azaldu** zeintzuk diren aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak. **Esaiozu** zure inguruan zer ikusten duzun edo zuk zer egin duzun zure seme-alabekin edo zer egingo zeukeen. **Emaiozu** zure aholkua.

Gutxienez, 200 hitz



Hartzaindegia



Aiton-amonak



Aitarekin



Amarekin



Zaintzailea

3.GAIA: DONOSTIAKO UDALAK KALEAN BILUZIK IBILTZEA DEBEKATU DU



Egoera:

Udalak udalerrian azken boladan hainbat herritar biluzik dabilela ikusita, horren aurkako legea ateratzea erabaki du. Honek herrian polemika handia sortu du eta zure barnean ere zerbait sorrarazi du.

Egitekoa :

Artikulu **bat idaztea erabaki duzu udaleko web-orrian :**

- Azaldu **zein den egoera eta zergatik atera duen udalak lege hori.**
- Azaldu **leku guztietan (hondartzan, enparantzan, eskolan...) jokatu behar da berdin?**
- Adierazi **legeak izango dituen eraginak.**
- Eman **zenbait arrazoi kontra edota alde egoteko.**

EUSKARAGARA.NET

Gutxienez 200 hitz

3 GUTUN FORMAL (IVAPen OHIKOAGO):

4. GAIA Kiroldegiko eralbiltzailea zara. Orain arte oso gustura egon zara, baina Azkenaldian konturatu zara igerilekuan egun batzuetan ura ez dela oso garbi egoten, jende gehiegi egoten dela, aldageletan ez dagoela pertxarik eta arropa gordetzeko takilak ere ez daudela oso egoera onean eta, oro har, ez zaudela gustura kiroldegiak erakusten duten itxurarekin. Erabiltzaile bezala kezkatuta zaude.

Beraz, kiroldegiko zuzendariari kexa-eskutitz bat idaztea erabaki duzu, egoeraren berri emateko eta irtenbideak proposatzeko. Gainera, zerbitzua hobetzeko proposamenak ere bidali nahi dizkiozu.

(Gutxienez **200 hitz**)

5. GAIA Donostiako janari-denda baten jabea zara. Orain arte ondo moldatu zara zure negozioarekin, baina janari-enpresa ospetsu batek Astrabuduan bertan supermerkatua zabaltzeko asmoa daukala jakin duzu.

Hau dela eta, herriko dendariak bildu zarete eta alkateari protesta luzatzea erabakia duzue. Beraz, eta dendarien ordezkaria zaren aldetik, alkateari eskutitz bat idatziko diozu egoera zein den argitzeko, zure kexa adierazteko eta irtenbideak proposatzeko.

(**200 hitz**)

EUSKARAGARA.NET

6. GAIA Julia Montes zara eta zure auzoan kotxeek ez dute zebrabiderik errespetatzen eta espaloi gainean ere uzten dituzte aparkatuta inolako begirunerik gabe. Gainera, gidari batzuk pasatzen dira ziztu bizian eta ez dute ezer errespetatzen. Egunen batean zerbait gertatzeko beldur zarete.

Udaltzainburuari idaztea pentsatu duzu egoeraren berri emateko, zure kexa adierazteko eta irtenbideak proposatzeko. (**200 hitz**)

7. GAIA : IRAKASLEEN BAJAK ARAZO PSIKOLOGIKOAK DIRELA ETA.

EGOERA :

Zure seme-alaben eskolan bost irakasle bajaran daude arazo psikologikoak direla eta. Eskolako zuzendaria zein irakasleak oso kezkatuta daude arazo horren aurrean eta gurasoengana jo dute eskolako blogaren bitartez gurasoen iritzia eta konponbideak bilatzeko asmoz.

EGITEKOA :

Arazo honen gainean **zure iritzia eman nahi duzu** aipatutako blogera bidaltzeko eta horretarako:

- **Azaldu** honelako bajaran arrazoiak zeintzuk diren, zure ustez.
- **Proposat** arazoaren irtenbideak zeintzuk izan daitezkeen.
- **Eman** zure iritzia gain honen inguruan.

Gutxienez 200 hitz idatzi



8. GAIA: DIRU-LAGUNTZA ZERTAN ERABILI

Gutxienez, 200 hitz

EGOERA:

Udalak aurten jaso duen diru-laguntzarekin herriko gazteentzako elkargune bat egin nahi du. Batzuen ustez, ordea, herriak baditu beste premia batzuk. Herritarrei zure iritzia emango diezu herriko aldizkarian.

EUSKARAGARA.NET

EGITEKOA:

Artikulu bat idatziko duzu **herriko aldizkarirako**, eta horretarako:

- **Azaldu** gaur egun zein aukera edo zailtasun dituzten herriko gazteek elkartzeko.
- **Adierazi** zer bestelako premiak dituen zure herriak, zure iritzi.
- **Eman** itzazu 3 edo 4 arrazoi diru-laguntza hori gazteentzako elkargunean erabiltzearen alde ala kontra.

9. GAIA : TELEBISTA-SAIO DESEGOKIA

EGOERA :

Telebista-kate batean arrakasta handia duen saio bat ematen dute, baina, zure ustez, guztiz desegokia da. *Consumer* aldizkariak ale berezia eskainiko dio telebista-kateen kalitateari. Zu gustura ez dagoen ikuslea zara eta, gutun baten bidez, saioarekiko desadostasuna adierazi nahi duzu.

EGITEKOA :

Irakurleei zuzendutako gutuna idatziko duzu, *Consumer* aldizkarian argitaratzeko.

Horretarako:

- **Azaldu** nolakoa den saioa
- **Adierazi** zeintzuk diren zure desadostasunaren arrazoiak
- **Proposat**u egokiagoa iruditzen zaizun beste saio mota bat

Gutxienez 200 hitz idatzi

10. GAIA: Bidesaria ordaindu behar?

Egoera:

Zure herriaren ondo-ondotik pasatzen den autobidea ordaindu gabe erabil daiteke, baina laster bidesaria jarriko dutela entzun duzu. Erabiltzaile guztiek ordaindu beharko dute, kamioi-gidariak izan ezik. Herrian mota guztietako iritziak daude: bidesaria jartzearen aldekoak eta kontrakoak. Zuk, gutun baten bidez, zure iritzia emango duzu eskualdeko aldizkarian.

EUSKARAGARA.NET

Egitekoa:

Idatzi gutun bat eskualdeko aldizkariaren irakurleei zuzendua, eta horretarako:

- Azaldu zein den autobide horren egoera (nolako trafikoa, errepidearen egoera...).
- Esan nola eragingo liokeen herriari, zure ustez, bidesaria jartzeak.
- Adierazi bidesaria jartzearen alde ala kontra zauden eta zergatik.

Egitekoari erantzuteko, **nahi baduzu**, ondoko puntu hauek **erabil ditzakezu**: trafiko-dentsitatea urteko garai desberdinetan; bertako erabiltzaileak eta kanpokoak; ohiko erabiltzaileentzako laguntzak; beste garraibide batzuen aukera...

Gutxienez, 200 hitz

11. GAIA : Janari lasterra nonahi

EGOERA :

Hanburgesak eta “zabor-jana” saltzen dituen enpresa ospetsu batek lokal bat zabaldu nahi du udalak eraikiko duen merkataritza-gune berrian. Albistea prentsa agertu zenetik, herrian eztabaida bizia piztu da: tabernariak haserre, zenbait gazte pozik, osasun kontuak tartean... Hori guztia dela eta, herriko aldizkariak herritarron iritzia zabaldu nahi du.

EGITEKOA :

EUSKARAGARA.NET

Eskutitza bidaliko diozu **herriko aldizkariaren zuzendariari**, eta horretarako:

- **Azaldu** zure esperientziaren arabera, nolako janaria ematen duten honelako lokaletan.
- **Adierazi** zeintzuk diren horrelako negozioen alde onak eta alde txarrak.
- **Arrazoitu** horrelako lokal bat irekitzearen alde ala aurka zauden.



12. GAIA : Txakurrak herrian

Gutxienez, 200 htz

EGOERA :

Txakurrak direla eta, azken boladan egoera istilutsuak sortu dira herrian hainbat arrazoiengatik: jabeen axolagabekeria, txakur arriskutsuen erasoak, kaleetako zikinkeria eta abar. Hori dela eta, udalak zenbait neurri zorrotz hartzera erabaki du arazoari aurre egiteko. Erabaki honek ika-mika ugari sortu dituenez, herriko aldizkariak herritarron iritzia zabaldu nahi du.

EGITEKOA :

Eskutitza bidaliko diozu **herriko aldizkariaren zuzendariari**, eta horretarako:

- **Kontatu** iritzia ematera bultzatu zaituen egoera istilutsuren bat.
- **Adierazi** udalak hartutako neurriekin ados zauden ala ez. **Arrazoitu**.
- **Proposatu** bestelako irtenbideren bat.

3 GUTUN FORMAL (IVAPen 125 hitzetako 2 eskatu ohi dute)

13. GAIA TABERNA ZARATATSUA _____

Karla Ostruka zara eta zure etxearen azpian taberna bat zabaldu dute orain dela gutxi. Jende gaztea biltzen da eta kalean egoten dira dantzaka, zarataka eta kotxeetako musika oso ozen jartzen dute. Dena oso zikin uzten dute eta gainera, inoiz auzokoak mehatxatuak eta irainduak izan dira. Idatziozu zure alkateari egoera honen berri emateko eta irtenbideak proposatzeko. **(200 hitz)**

14.GAIA ESPALOIAREN EGOERA _____

Helena Matriz zara eta Astrabuduan bizi zara. Aurreko astean zure ama, 75 urteko jubilatua, espaloian jausi zen eta hanka apurtu zitzaion. Egia esan, espaloiaren egoera oso tamalgarria da: espaloiko lauzak oso zaharrak dira eta gehienak kili-kolo daude, hau da, egoera txarrean daudela eta edonor erortzeko moduan. Gainera, jende gehiago erori egin da.

Bestalde, zure kalean beste arazo batzuk daude, besteak beste, ez dago behar bezalako argitazpenik, zarama biltzeko ontziak oso zaharkituak daude....

Idatziozu gutun bat alkateari gertatu dena azaltzeko, espaloiaren egoera zein den azaltzeko, eta oro har, kaleko egoeraren inguruan zure kexa adierazi nahi diozu eta bai erantzukizuna eskatu ere. **(200 hitz)**

15. GAIA: OSPITALEA

Aurreko asteburuan zure ama gaixotu zela eta Gurutzetako ospitalera joan behar izan zenuen korrika eta presaka. Han luze itxaron egin behar izan zenuen eta zure ustez larriagoak ez ziren beste kasu batzuk aurretik sartu ziren. Gainera, bai mekikuarengatik bai gainerako pertsonalarengandik hartutako tratua ez zen izan espero zenuena.

Idatziozu gutun bat ospitaleko zuzendariari gertatu zaizuna kontatzeko, zure kexa adierazteko eta bai erantzun bat eskatzeko ere. **(200 hitz)**

16. GAIA: Animalia abandonatuen elkarte

EGOERA:

"Zaunka" abandonatutako txakur eta katuak zaintzeko, eta adopzioan emateko elkarte da. Zu elkarte horretako boluntarioa zara eta oso arduratuta zaude aspaldion gero eta animalia gehiago iristen zaizuelako zentrora. Hori dela eta, gutun baten bidez, animatu nahi duzu jendea animaliairen bat adoptatzera.



EGITEKOA:

Irakurleei zuzendutako gutuna idatziko duzu, herriko aldizkarian argitaratzeko. Horretarako:

- **Eman** zure elkartearen egiten duzuen lanaren berri.
- **Adierazi** etxean animaliairen bat izateak zer dakarren.
- **Eman arrazoiak** jendea animatzeko animaliairen bat adoptatzera_ **Gutxienez, 200 hitz**

17. GAIA: Eskolako lanak

EGOERA:

Gurasoen Elkartearen blogean gurasoen iritziak bildu nahi dituzte eskolako lanen inguruan. Zure iritzia ematea erabaki duzu.



EGITEKOA:

Artikulu bat idatziko duzu **blogean** argitaratzeko eta, horretarako:

- **Azaldu** zein den zure seme-alaben egoera.
- **Adierazi** eskolako lanen alde onak eta txarrak eta **eman** zure iritzia.
- **Proposatu** beste irtenbideren bat gai honen inguruan. **Gutxienez, 200 hitz**

18. GAIA: Etxetik alde egiteko diru laguntzak

EGOERA:

Gazteei asko kostatzen zaie gurasoen etxetik alde egitea. Gobernuak 210 euro emango dizkie 22-30 urte bitartekoei alokairua ordaintzeko. Hau irakurri eta gero zure iritzia ematea erabaki duzu



EGITEKOA:

Artikulu bat idatziko duzu **herriko aldizkarirako**, eta, horretarako:

- **Azaldu** zein den gazte askoren egoera.
- **Adierazi** gobernuaren erabakiaren alde ala kontra zauden, eta zergatik
- **Proposatu** beste irtenbide batzuk **Gutxienez, 200 hitz**

19. GAIA: Internet eta zu.

EGOERA:

Getxoko Kazetaguneak lehiaketa bat antolatu du. Lehiaketaren gaia: "Internet eta zu". Parte hartzaileen artean ordenagailu bat zozketatuko da. Saria irabazteko asmoz zure iritzia bidaltzea erabaki duzu.



EGITEKOA:

Bidali zure iritzia **Kazetaguneko arduradunari**, eta horretarako:

- **Azaldu** zein den zure esperientzia gai honen inguruan.
- **Esan** zertarako erabiltzen duzun internet

Adierazi zeintzuk diren interneten onurak eta kalteak.

EUSKARAGARA.NET

20. GAIA: Gaur egungo eskola eta aspaldikoa

EGOERA:

Ikastolako aldizkarian hilero gurasoek gai bati buruzko iritzia argitaratzen dute. Hilabete honetako gaia, "gaur egungo eskola ala aspaldikoa?", jakin eta gero zure ikuspuntua adieraztea erabaki duzu.

EGITEKOA

Bidali zure iritzia aldizkariaren arduradunari eta horretarako:

- **Azaldu** nolako zen zure garaiko eskola eta nola ikusten duzun egungo eskola
- **Adierazi** bien arteko desberdintasunak
- **Esan** zein nahiago duzun.



21. GAIA: GAZTEEN LONJAK.

EGOERA:

Erandion gero eta gazte gehiagok alokatzen dituzte lonjak. Zure etxearen beheko lonja bat ere gazte batzuek alokatu dute eta arazoak izan dituzue: zarata, zikinkeria... Horregatik, gutun baten bidez, gazteen lonjen inguruan zure iritzia eman nahi duzu



EGITEKOA:

Irakurleei zuzendutako artikulua idatziko duzu, udal aldizkarian argitaratzeko. Horretarako

- **Azaldu** zer-nolako arazoak izan dituzuen.
- **Adierazi** gazteek aisialdirako dituzten aukerak.
- **Proposat**u irtenbide egokiagoak.

22. GAIA: Oporretara joateko aukerarik onena

EGOERA:

Eroski-k lehiaketa bat antolatu du eta parte-hartzaileen artean bidaia bat zozketatuko du. Gaia honako hau da: *Zein da oporretara joateko aukerarik onena: kanpina, apartamentua edo hotela?* Saria irabazteko asmoz zure iritzia bidaltzea erabaki duzu.



EGITEKOA:

Bidali zure iritzia **aldizkariko zuzendariari**, eta horretarako:

- **Azaldu** zein den zure esperientzia eta zure inguruan zer ikusten duzun.
- **Adierazi** zeintzuk diren aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak.
- **Esan** zuk zein nahiago duzun eta **eman** argudioak.



Gutxienez, 200 hitz

23. GAIA : Nola erabiltzen dugu eskuko telefonoa?

EGOERA :

"Euskaltel" telefono-konpainiak lehiaketa bat antolatu du: "Nola erabiltzen dugu eskuko telefonoa". Idazlan onenen artean eskuko telefono bat zozketatuko du. Lehiaketan parte hartzea erabaki duzu.



EGITEKOA :

Artikulu bat idatziko duzu **lehiaketan parte hartzeko**, eta horretarako:

- **Kontau** zuk noiz, nola eta zertarako erabiltzen duzun eskuko telefonoa.
- **Azaldu** zein abantaila eta desabantaila dituen eskuko telefonoak.
- **Eman** gomendio batzuk telefonoa erabiltzeko orduan.

Gutxienez, 200 hitz

24. GAIA: BARKALDON TABERNA GEHIAGORIK EZ!

EGOERA:

Barakaldoko Udalak taberna gehiagorik zabaltzeko baimenik ez ematea erabaki du. Zu auzokoen elkarteko arduraduna zara eta erabakiaren inguruan zure iritzia eman nahi duzu.



EGITEKOA:

Bidali **iritzia herriko aldizkarira**, eta horretarako:

- **Azaldu** zein den egungo egoera.
- **Adierazi** erabaki honek izango dituen eraginak.
- **Eman** alde edota kontra egoteko arrazoiak.

Gutxienez, 200 hitz

25. GAIA: Liposukzioa opari!

EGOERA:

Ikastolako blogean aste honetan honako albiste hau agertu da: "neska gazteen artean ikasturte amaierako opari gisa liposukzioa eskatzen dietela gurasoei". Zuk 16 urteko alaba daukazu eta gai honen inguruan zure iritzia bidaltzea erabaki duzu.



EGITEKOA:

Blogera zure iritzia bidaliko duzu eta horretarako:

- **Azaldu**, zure ustez, "opari hori" eskatzeko arrazoiak.
- **Adierazi** ados zauden ala ez "opariarekin" eta arrazoiak **eman**.
- **Proposatu** beste irtenbide bat edo batzuk.

Gutxienez, 200 hitz

26. GAIA: NON DAUDE GAUR EGUN GARAI BATEAN ZEGOEN PORTAERA ONA

EGOERA :

- Euskaltegiko aldizkarian, ikasle batek metroan ikusten dituen jokaera desegokietako bat kontatzea erabaki du. Aurreko astean metroan agure bat sartu zen eta eserita zegoen jendea –dio ikasleak- ez zen altxatu agureari lekua uzteko. Ni txikia nintzenean –jarraitzen du ikasleak- nagusiei eserlekua utzi behar izaten genien. Non geratu dira portaera eta heziketa ona? –galdetzen du ikasleak
- Ikasle honek luzatutako gaia interesgarria iruditzen zaizu eta zure iritzia ematea erabaki duzu.

EGITEKOA:

- **Artikulu bat** idatziko duzu **euskaltegiko aldizkarirako**, eta horretarako:
- **Eman zure iritzia** ikasleak kontatu duenari buruz.
- **Azaldu** nolako portaera ematen zen zu txikia zintenean eta **konparatu** gaur egungoarekin.
- **Proposatu** honelako egoerak zuzentzeko gomendio batzuk.